# Denbora-

## 1 Puzzlea

Lagunarekin ateratako argazkia bidali digu Enaitzek. Hainbat zati kendu dizkiogu irudiari.










Erantzunak: **1.-** 1-i, 2-a, 3-d, 4-f, 5-c, 6-h, 7-b, 8-e eta 9-g. **3.-** b eta h. **4.-** Martinek 4.225 kilo jaso zituen, eta Pellok, 4.075 kilo. Martin izan zen, beraz, garaile. **5.-** 1-C, 2-E, 3-F, 4-B, 5-D eta 6-A.




## 2 Labirintoa

Egutegitik kendutako orrialdeak pilatuak zituen Eneritzek. Zein bide hartu behar da egutegiko orriak batzeko?




## 3 Bikiak

Euria ari zuela eta, kalean ikusitako aterkiei argazkiak ateratzen aritu da Manex. Aterki bati bi argazki egin dizkio. Zein aterkiri?

# -pasak

## 4 Harri-jasotzaileak

Aurrez aurre lehiatu dira Martin eta Pello herriko jaietan. Atera kontuak, eta nork irabazi duen jakingo duzu.







| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | gozotasun | a | aisatnaf |
| 2 | edertasuna | b | nepadnezi |
| 3 | deuseztapen | c | nusatozog |
| 4 | izendapen | d | utnupaiba |
| 5 | abiapuntu | e | anusatrede |
| 6 | fantasia | f | nepatzesued |

## 5 Hitzak alderantziz

Hitzak atzekoz aurrera idaztea eta irakurtzea dirudien baino zailagoa da. Nola idatziko zenituzke ezkerreko hitzak alderantziz? Bilatu!

# Jolasa

## Mamuaren ehiza

Kontuz, mamua dator eta! Taldekideen arteko elkarlana eta koordinazioa behar-beharrezkoak izango dira, mamuak harrapatzeko.



**1** Marraztu laukizuzen luze eta estu bat lurrean (ikusi marrazkia). Laukizuzenaren barruan, markatu hiru lerro zuzen; lerro horietan jarriko dira mamu-harrapatzaileak. Banatu jokalariak bi taldetan: batzuk mamuak izango dira, eta besteak, mamu-harrapatzaileak. Aurrez marraztu ditugun lerro horietako bakoitzean, bi mamu-harrapatzaile egongo dira, gerritik helduta. Elkarri lotuta egon behar dute une oro, eta lerroaren gainean eskuinetara edo ezkerretara bakarrik mugitu ahal izango dira. Lerroetatik kanpo geratu diren gainerako jokalari guztiak mamuak izango dira.

**2** Laukizuzenaren alde batetik bestera igarotzea lortu behar dute mamuek. Mamu-harrapatzaileak, berriz, mamuak harrapatzen ahaleginduko dira. Helmugara iritsi bitartean mamu-harrapatzaileek mamuren bat ukitzea lortzen badute, harrapatzaile bihurtuko da mamua. Gogoratu harrapatzaile guztiek gerritik helduta egon behar dutela! Mamua harrapatzean, ilararen bat askatzen bada edo lerrotik irteten bada, baliorik gabe geratuko da harrapaketa hori.

**3** Mamu guztiak harrapatutakoan amaituko da jokoa.